

Ongietorria Sardinian Irizar i4 autokarrei

Sardiniako bidaiarien garraio-enpresa publikoak, ARST-k, Irizarrengan konfiantza du eta bere flota berritzeko Irizar i4 eredua nahi du. Italiarrek Irizar i4 modeloko 200 unitate erosi dituzte, eta Ormaiztegi egoitza nagusian egingo dira.

Irailaren 15ean aurkeztu zituzten Sardiniako agintariek eta Irizarreko arduradun nagusiek lehenbiziko unitateak. Irizar i4 modelokoak dira guztiak eta eskari handi bateko lehenengo unitateak dira aurkeztutako horiek.

ARST enpresaren egoitza Cagliariin dago eta kapital publikoko bidaiarien garraio-enpresarik handiena da Sardinian. Konpainia honek 470 autobus ditu eta gaur egun uharteko gainerako enpresa publikoak bereganatzeko prozesuan buru-belarri sartuta dago. Prozesu honen amaieran 750 autobus izango ditu. Era berean, Sardiniako garraio publikoa birdiseinatzeko prozesu honetan azpimarratu beharra dago 2007an ARSTk 109 hiribus erosi

zituela eta Irizarri 210 autobus erosi zizkiola, hiri arteko ibilbideetarako.

Uhartearen konfigurazio geografikoa dela eta, ibilgailu ugari behar du distantzia labur eta ertaineko bidaiarientzat, eta horretarako diseinatu eta garatu da Irizar i4 modeloa, hain zuzen ere.

Eskari honekin Irizarrek lehen urtean Irizar i4 modeloko 400 unitate inguru salduko ditu. Gainera, argi geratzen da ibilgailuaren garapen eta merkaturatzearekin erabat asmatu zuela. Espainiako eta Portugalgo merkaturan 2007an aurkeztu zuen.

“

ARST enpresaren egoitza Cagliariin dago eta kapital publikoko bidaiarien garraio-enpresarik handiena da Sardinian.

